

DEBAko UDALA

2018SPLE0001
1. BILERA: OHIKOA 2018-01-25

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra
Zenbatgarrena: lehenengoa
Eguna: 2018/01/25
Hasiera-ordua: 19:30
Amaiera-ordua: 19:55
Onarpen-eguna: 2017/02/22

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:


PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA
AITOR SALEGI IRURETA
ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA
M^a LUISA ALBIZU BEITIA
MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN
AIMAR LASA URKIRI
JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN
MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE
UNAI LEKUBE ARANBERRI
IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA
ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA
ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

Bertaratzeak eta irteerak


Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/12/21).
2. 18N-1 (AU 18) lursaila “Itziarko Poligonoa”, Mecanizados WEC S.L.-k sustatua. Xehetasunen Azterlanari behin betiko onespina emateko proposamena.
3. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
4. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/12/21)

2017ko abenduaren 21eko bilkuraren akta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamaika bilkuran direla.

2.- 18N-1 (AU 18) 2B lursaila “Itziarko Poligonoa”. Mecanizados WEC S.L.k sustatua. Xehetasunen Azterlanari behin betiko onespena emateko proposamena.

Zinegotziek esku artean dutena Hirigintza eta Etxebizitza batzorde informatzailearen proposamena da.

Aurrekariak

Mecanizados WEC S.L.-k sustatutako eta XX (injeniarria) eta XX (arkitektoa) idatzitako 18N-1-AU 18 lursailaren “Itziar poligonoa”, Xehetasunen Azterlana izapidetzeko eskaera jaso zen Udaletxean.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. Artikuluan jasotzen da xehetasunen-azterketak izapidetu eta onartzeko onartzeko eman beharreko urratsak.

“98. artikulua.– Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.

- 1.– Xehetasun-azterketei eskumena duten udalek emango diete hasierako onespena hiru hilabeteko epean.
- 2.– Hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.
- 3.– Xehetasun-azterketei behin betiko onespena ematea udalari dagokio; horretarako, hiru hilabeteko epea izango du, hasierako onespena ematen zaienetik. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, xehetasun- azterketa alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.

Beraz, tramitazioari dagokionez, hasierako onarpema eman zitzaion alkatetza Dekretu bidez 2017ko ekainaren 21ean.

Jarraian, jendaurrean jarri zen 20 egunez, azken argitalpenetik kontaktzen hasita. Horretarako, 2017ko ekainaren 27ko datarekin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia eta egunkarian eman zen jakitera data berberarekin. Udaleko iragarki taulan ere jarri zen.

Legez ezarritako epean ez da alegaziorik egon, beraz behin betikoz onartuko du Udalak.



DEBAko UDALA

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du ondoko erabakia, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamaika bilkuran direla, horretarako aintzat hartu du Hirigintza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamena.

Lehenengo.- Debako Arau Subsidiarioetako, 18N-1- AU 18 lursaila “Itziar Poligonoa”, Xehetasun Azterlana behin betiko izaeraz onartzea.

Bigarren.- Erabaki hau Mecanizados WEC S.L.ri jakinaraztea.

Hirugarren.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraztea.

3.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.


Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

2017.urteko alkatearen erabakiak

168	2017/12/19	766/2017 prozedura laburtuaren administrazioarekiko auzien errekurtsioan demandatu gisa agertzea	
169	2017/12/20	Debabarreneko emplegua eta tokiko garapena sustatzeko Lanbidekin egindako hitzarmena ikusita lau langile kontratatzea 2017/12/26tik 2018/05/25era	
170	2017/12/21	Debako udalari aholkularitza juridikoa emateko kontratua esleitzea.	2018SCOU0001
171	2017/12/22	Eguneko Zentrorako ur zikinenzako bonba erostea esleitzea.	2017SCOU0021
172	2017/12/21	Hagazko SL enpresak sustatutako xehetasun azterlanari hasierako onarpena ematea.	2017URED0003
173	2017/12/22	Debabarrenean lehen mailako gizarte zerbitzuen maparen azterlana, garapena eta ezarpena egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua esleitzea.	2017SCOU0022
174	2017/12/27	Lizentziarik gabe edo zehapenei egokitu gabe exekutatzeko ari diren lanen hirigintzako antolamenduaren leheneratzea.	
175	2017/12/28	Hirugarren Adineko Zentruko 2.solairuko berrikuntza proiektua egitea esleitzea.	2017SCOU0023

2018.urteko alkatearen erabakiak

1	2018/01/08	Udal erroldan baja ematea	
2	2018/01/10	Eguneko Zentruko langile baten gaixotasun baja ordezkatzeko kontratazioa urtarrilaren 10etik aurrera.	



DEBAko UDALA

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

4.- Eskariak eta galderak.

Jose Luis Albizu zinegotziak galdetu du ea Tokiko Gobernu Batzordeak esleitu dituen garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak, izan ere, urtarrila bukaeran bilera handia egingo da Guatemala inguruan eta bertan berri eman nahi da.

Aurrekontuen bilera dela eta, Maider Zubikarai zinegotziak esan du asteleheneko bileran entzun eta galderak egingo dituztela eta bilera horretan ez dutela ekarpenik egingo.

Maiderek eskatu du Udalak dituen auzien berri edukitzea eta horretarako bilera bat egitea proposatu du.

Maiderek, EA-ren idazkia dela eta, galdetu du etxebizitza dotazionalen inguruan. Alkateak erantzun dio espedientea begiratu dutela eta Iñaki Arriola sailburuarekin bilera bat egingo dela edukitzeko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen berri. Ondoren erabakiko da proiektuak interesik ote duen herriarentzat.

Aimar Lasa zinegotziak berri eman du, tren-bonoa kendu egin dutela, eta ondorioz, Mugi txartela erabilita ere, hilean 32 € gehiago ordaindu behar dutela erabiltzaileek. Gainera, bonoa kendu eta txartela eskuratu bitartean erabiltzaileek ez dute deskonturik eduki.

Aimarrek jakinarazi du gaueko trena kendu egin dutela eta Ondarroa-Zumaia autobus zerbitzuan ere murrizketak egon direla.

Aimarrek eta Maiderek proposatu dute mugikortasuna, Debegesaren esku egonda, beraiekin landu beharko litzatekeela gai hau eta eskualdeko eskaera egitea Foru Aldundiari.

Aimarrek mahairatu du, azken hilean Alex Turrillasen eta Cardenasen idazkiak zabaldu direla “txurreriaren” proiektuaren inguruan eta Udaletxeko e-mail batetik irten direla.

Alkateak erantzun dio beraiek ere ohartu zirela Udaletxeko e-mail batetik irten zirela idazki horiek eta e-mail horri ez litzaiokeela erabilpen hori eman behar. Jarraian “txurreria” proiektuaren nondik norakoen berri eman du eta orain arte emandako urratsak zeintzuk izan diren azaldu du. Azpimarratu du, momentuz Hiri Antolaketa Arauen berrikuspena izapidetzen ari dela Udala.

Maiderek esan du orain Udalaren erronka dela kasinoa ondo jartzea eta ondoren Hotela.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

IDAZKARIA

Deban, 2018ko urtarrilaren 25ean